

EBk egun dituen “arriskuak”: Asimetria sozio-ekonomikoak, politikoak ...

Helburuak:

XXI. mendean Europar Batasunak duen erronkarik handiena ez da atzerriko potentzia baten mehatxua, ez eta muga-gaindiko aberriren batekin izan daitekeen guda. EBk duen erronkarik handiena 28 estatu kideen eta 500 miloi biztanle baino gehiagoren politikak, beharrak eta interesak bateratuko dituen komuneko proiektu baten gabezia da.

Erronka honek, EBk premiaz aurre egin beharreko arrisku asko dakartza. Batez ere, arazo guztiak europar batasunetik datozela eta irtenbideak estatuetatik soilik datozela zabaltzen hari diren eta euro-fobia eta euro-eszeptizismoa bultzatzen duten Europar Kontinenteko alderdi batzuen aurrerakada handia. Hortaz, EBk arazo hauei aurre egin ezean, EBk askatasuna eta elkartasuna sustatzen duen nazioarteko aktore lez duen lekuaren galera eta honek eragiten duen negoziaketa ahalmenaren galera ekar dezake.

Krisiaren kudeaketa txar baten ondorioz eta nazioez gaindiko erakundeak bigarren maila batean soilik uztearen ondorioz maila ekonomikoan, politikoan, fiskalean eta gizarte mailan sortzen hari diren asimetrien, desoreken eta desberdintasunen areagotzea da Europar Batasunak egun duen arrisku handienetariko bat. Izan ere, Europako Kontseiluak, estatu-kideek eta Europako erkidegoaz gaindi dauden erakundeek (Troika esaterako) egin duten gobernantza ekonomiko berriak Europako Legebiltzar eta batzordetik aldentzen den eta hortaz gizartetik gero eta gehiago aldentzen den erabaki-hartzeak ekarri ditu. Bestalde, Europako banku zentralaren independentzia beharrak erakunde honen gaineko kontrol politiko eza eragin du. Gainera, guzti honetaz gain, azken aldi honetan arlo ekonomikoan hartutako erabakiek aberri hartzekodunen (Iparraldekoak) eta zordunen (hegoaldekoak) tartea areagotu ditu.

Europako integrazio prozesua “arriskuan” jartzen duten asimetriak zuzentzeko asmoz, EUROBASKek adituekin batera eztabaidatzeko gonbita luzatzen dio gizarteari. Horrela, euren iritziekin europar proiektua *berrabiarazi* eta Europako metodoa kohesio eta arrakasta metodo bat izateko bultzada berri bat ematen saiatuko gara.

3 egunetan zehar, hurrengo galderari erantzuna emateko gonbitea luzatzen dugu:

Nola egin aurre 3D ekonomiari: Desberdintasuna, deslokalizazioa, desindustrializazioa?

Zelan gainditu Europa barruan sortzen ari diren asimetriak? Zelan indartu EBk eta nazioz gaindik duen papera?

Europako lan merkatua eta langabezia. Prekarietatea. Nahitaezko lan kontzeptu berria?

Europar federalismo fiskala, korporazio handien aurrean

EBk gabeko mundua: Arriskuz beteriko lekua?

TTIPa: historian gertatu den hitzarmen ekonomikorik handiena, edo europar kamusada berria?

Lehenengo egunean Europa barruko erakunde mailako eta maila politikoko asimetriak eta arlo komunitarioa indartzeko egindako hitzarmenen inefizientziak aztertuko dira. Barne dibertsitateak sortzen dituen arazoak eta gizarte europarra dibertsitatean, pluralismoan eta zuzenbide estatuan indartzeko politiken beharra ere aztertuko da. Horretaz gain, egun honetan ere kudeaketa erregionala eta tokiko kudeaketaren alde egiten duen maila anitzeko gobernuetarantz bideratzen duten politiken sorkuntza eta Europako erakundeen gardentasuna eta efizientzia hobetzen duten tresnei buruzko gogoeta egingo da.

Bigarren egunean, asimetria sozio-ekonomikoak, globalizazioak eragiten dituen erronkak, lan merkatuan soldaten lehiakortasuna, eta gizarte parte-hartzaileak ongizate estatuaren oinarri berrizat duen papera aztertuko dira. Zerga iruzurraren aurkako Europa mailan eramaten den borroka eta Europako periferian EB maila politiko, ekonomiko eta gizarte mailan orekatuko duen manufaktura baten birsortzearen beharra ere aztergai izango dira.

Hirugarren egunean EBk dituen asimetria eta erronka geopolitikoetaz arituko gara. 2015ean Garapenaren Europar Urtea ospatzen denez, EUROBASKEk kooperazio eta garapeneko politikaren benetako helburuak eta emaitzak aztertuko dira. Bestalde, Europako interes komunen defentsan hedabideek duten papera (Luxleaks kasua) eta gatazka geopolitikoetan hauek duten independentzia ere aztertuko da. Azkenik, eta gai honek duen garrantziaz jabeturik, TTIParen abantailez eta desabantailez arituko gara.